


UDALTZAINGOAREN OINARRIZKO ESKALAKO AGENTEA

1. Lehena.- Deialdiaren xedea

a) **270 plaza, Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako** agente izateko, honako hauen arabera:


- • 2 plaza Abanto-Zierbenako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • 2 plaza Amorebieta-Etxanoko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • Plaza1 Amurrioko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota..
- • Plaza 1 Aretxabaletako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • 5 plaza Arrasateko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • 3 plaza Arrigorriagako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • 2 plaza Azkoitiako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • 20 plaza Barakaldoko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta 19k derrigortasun–data igaro gabe.
- • 6 plaza Basauriko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta 3k derrigortasun–data igarota.
- • 2 plaza Beasaingo udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • 11 plaza Bermeoko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • Plaza 1 Derioko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igaro gabe.
- • 49 plaza Donostia-San Sebastiángo udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota
- • 8 plaza Eibarreko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • 4 plaza Elgoibarreko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • 7 plaza Errenteriako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • 9 plaza, Etxebarriko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta seik derrigortasun–data igarota.
- • 21 plaza Getxoko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta hamarrek derrigortasun–data igarota.
- • Plaza 1 Gorlizeko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igaro gabe.
- • 13 plaza Irungo udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta 9k derrigortasun–data igarota.
- • 4 plaza Lasarte-Oriako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
- • 5 plaza Laudioko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.



- • 3 plaza Lekeitioko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 - • 7 plaza Mungiako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 - • Plaza 1 Ordiziako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 - • 2 plaza Ortuellako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igaro gabe.
 - • 6 plaza Pasaiako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 - • 4 plaza Portugaleteko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igaro gabe.
 - • 13 plaza Santurtziko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 - • 2 plaza Sestaoko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 - • 2 plaza Urretxuko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 - • 39 plaza Vitoria-Gasteizeko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta 15ek derrigortasun–data igarota •
 - • 2 plaza Zallako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 - • 3 plaza Zarautzeko udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 - • Plaza 1 Zumaiako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 - • 8 plaza Zumarragako udalerako, 2. (euskara) hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun–data igarota.
 -
- b) **Plaza kopurua handi daiteke**, Udaltzaingoaren agente izateko lanpostu hutsen arabera.

2. **Bigarrena.- Parte hartzeko baldintzak**


- a) Aldez aurretik **eskabidea** egitea.
- b) Espainiako **nazionalitatea** izatea.
- c) Gutxienez honako **altuera** izatea: gizonaek 1,65 metro eta emakumeek 1,60.
- d) **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako** edo baliokidea, edo goragoko mailako graduatu titulua izatea.
- e) Euskal Herriko Poliziaren hautaketa eta prestakuntza-araudia onartzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan agertzen diren baztertzeko **osasun-kasuen** taulako kasuren batean **ez** egotea.
- f) Dolozko delituagatik kondenatua **ez** izatea (birgaitze-onura ezarriko da), Herri Administrazioaren zerbitzutik berezia ez izatea eta **funtzio publikoak egiteko ezgaituta ez egotea**.
- g) Hutsegite larria edo oso larria egin izanagatik **Euskal Herriko Polizia Kidegoren** batean sartzeko hautaketa-prozeduratik **baztertua ez izatea**.
- h) **Ezintasuneko legezko motibo batean** sartuta ez egotea, praktiketako funtzionario izendapena egiten denean indarrean dagoen araudian ezarritakoa kontuan izanik.
- i) Honako gidabaimenak izatea



Deitutako lanpostu guztietarako:

Turismoetarako B gidabaimena, eskaerak aurkezteko eperako.

- **Arrasateko udalerako 5 plazetarako:**
A2 gidabaimena, Epaimahai kalifikatzaileak plazak esleitzeko azken eguna baino lehen.
- **Azkoitiako udalerako 2 plazetarako:**
A1 gidabaimena, karrerako funtzionario izendapena baino lehen.
E (garabia) gidabaimena, karrerako funtzionario izendapena baino lehen
- **Barakaldoko udalerako 20 plazetarako:**
A gidabaimena, karrerako funtzionario izendapena baino lehen.
- **Basauriko udalerako 6 plazetarako:**
A gidabaimena, karrerako funtzionario izendapena baino lehen.
- **Beasaingo udalerako 2 plazetarako:**
A2 gidabaimena, eskaerak aurkezteko azken eguna.
- **Donostiako udalerako 49 plazetarako:**
A2 gidabaimena, Epaimahai kalifikatzaileak plazak esleitzeko azken eguna baino lehen
- **Errenteriako udalerako 7 plazetarako:**
A2 gidabaimena, karrerako funtzionario izendapena baino lehen.
C1 eta E gidabaimenak, karrerako funtzionario izendapena baino lehen.
- **Laudioko udalerako 5 plazetarako:**
A gidabaimena, karrerako funtzionario izendapena baino lehen.
- **Lekeitioko udalerako 3 plazetarako:**
A2 gidabaimena, Epaimahai kalifikatzaileak plazak esleitzeko azken eguna baino lehen
- **Mungiako udalerako 7 plazetarako :**
A2 gidabaimena, karrerako funtzionario izendapena baino lehen.
- **Ordiziako udalerako plaza 1erako :**
A2 gidabaimena, eskaerak aurkezteko azken eguna.
- **Portugaleteko udalerako 4 plazetarako:**
A2 gidabaimena, Epaimahai kalifikatzaileak plazak esleitzeko azken eguna baino lehen.
- **Urretxuko udalerako 2 plazetarako:**
A2 gidabaimena, Epaimahai kalifikatzaileak plazak esleitzeko azken eguna baino lehen.
A gidabaimena, Epaimahai kalifikatzaileak plazak esleitzeko azken eguna baino lehen.
- **Vitoria-Gasteizeko udalerako 39 plazetarako:**
A2 gidabaimena, Epaimahai kalifikatzaileak plazak esleitzeko azken eguna baino lehen.
A gidabaimena, karrerako funtzionario izendapena baino lehen.



- **Zarautzeko udalerako 2 plazetarako:**
E gidabaimena, eskaerak aurkezteko azken eguna.
 - **Zumaiako udalerako plaza 1erako:**
A2 gidabaimena, prozedura honetarako aurreikusitako azken egunerako
- j) Vitoria-Gasteizeko udalerako 39 plazetarako, **ITTXARTELAK 02** (Windows, Oinarrizko Word, Oinarrizko Internet) izatea.

3. Hirugarrena.- Eskabideak aurkeztea

- a) **Eskabideak** Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren webgunean izango dira:
www.arkauteakademia.eus
- b) **Epea: 20 EGUN BALIODUNEKO OINARRIAK ARGITARATZEN DIRENETIK KONTATZEN HASITA** (larunbatak, igandeak eta jai-egunak ez dira baliodunak).

4. Laugarrena.- Hautaketa sistema: OPOSIZIO-LEHIAKETA


5. Bosgarrena.- Oposizioa:

Ondoz ondoko proba hauek egin beharko dira:

- a. **Lehen proba**, nahitaezkoa eta baztertzaila, **ezagutzen-proba** (test erakoa). Proba honetan, **0 puntutik 150era** emango dira, eta kanpoan geratuko dira gutxienez 75 puntu lortzen ez dutenak. Probaren edukia ebazpen honen I. eranskinean zehaztuta dago.
- b. **Bigarren proba**, nahitaezkoa eta baztertzaila, proba psikoteknikoa izango da, eta hautagaien **gaitasunak** neurtzea izango du helburu. Proba horri **0 eta 120 puntu artean** emango zaizkio. Bigarren proba horretan, **lau ariketa** egin beharko dira, denak ere nahitaezkoak eta baztertzailak
- a) Arrazoitze-ariketa.
 - b) Pertzepzio gaitasunari buruzko ariketa (identifikazioa, diferentziazioa...)
 - c) Gaitasun espazialei buruzko ariketa.
 - d) Hitzeko gaitasunari buruzko ariketa.

Proba hori gainditzeko, beharrezkoa izango da ariketa bakoitzean gutxienez 15 puntu lortzea, eta gutxienez 60 puntu proba osatzen duten lau ariketetan.

- c. **Hirugarren proba**, nahitaezkoa eta baztertzaila, proba **psikoteknikoa**. Proba honi **0 eta 150 puntu artean** emango zaizkio. Hirugarren proba honetan, **bi ariketa** egin beharko dira, biak ere nahitaezkoak eta baztertzailak:



a) Nortasun-testa: ariketa honen helburua da ebaluatzea hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenen **nortasun-ezaugarri nagusiak** eta **asaldura eta moldatu ezina** neurtzeko adierazleak. Proba honetan, **0 puntutik 100era** emango dira, eta kanpoan utziko dira gutxienez 50 puntu lortzen ez dutenak.

b) Nortasun-testa: **lan-jarduerarekin lotutako jokabideak** neurtzea du helburu. Proba honetan, **0 puntutik 50era** emango dira, eta kanpoan utziko dira gutxienez 25 puntu lortzen ez dutenak.

d. **Laugarren proba**, nahitaezkoa eta baztertzaila, **gaitasun fisikoaren** proba. Proba honi **0tik 80 puntura bitartean** emango zaizkio. **Lau ariketa** egitean datza. Proba gainditzeko beharrezkoa izango da ariketa bakoitzean gutxienez 10 puntu lortzea eta gutxienez 40 puntu proba osatzen duten guztien lau ariketetan:

- Igeriketa, 50 metro libre
- Aulkiko pressa
- Bizkortasun testa
- Course-navette

e. **Bosgarren proba**, nahitaezkoa eta baztertzaila, **aurrez aurreko elkarrizketa** bat, helburu duena neurtzea hautagaiek jokabide eta gaitasun egokiak dituzten, deitutako lanpostuaren profil profesionaleko eginkizunak eta atazak betetzeko. Proba hori **0 puntutik 50era** baloratuko da, eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira hori gainditzeko.

6. Seigarrena.- Lehiaketa.

Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente gisa Udaltzain Kidegoetan egindako zerbitzuak baloratzean datza, **eguneko zerbitzua 0,10 punturekin** baloratuko da. **Gehienez 150 puntu** lortu ahal izango dira.

7. Zazpigarrena.- Euskararen jakite-maila baloratzea (guztirako puntuaziotik %10a)


Agirien bitartez egiaztatzea eta berariazko proben bitartez ere bai.

2. **Hizkuntza-eskakizuna derrigortasun-data igarota duten plazetarako dauden hautagaiei honako baremoarekin baloratuko zaie:**

- Europako Kontseiluak onetsitako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko **C-1 Maila** edo goragokoa: **70 puntu.**

2. **Hizkuntza-eskakizuna derrigortasun-data igaro gabe duten plazetarako dauden hautagaiei honako baremoarekin baloratuko zaie:**

- Europako Kontseiluak onetsitako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko **C-1 Maila: 70 puntu.**



- Europako Kontseiluak onetsitako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko **B-2 Maila: 40 puntu.**

8. Zortzigarrena.- Praktiketako funtzionarioen izendapena

Deialdiko betekizunak behar bezala betetzen direla egiaztatzen dituzten hautatutako pertsonak **praktiketako funtzionario** izendatuko dira . Eta ondoren honako hauek egingo dituzte:

- Prestakuntza ikastaroa
- Praktikaldia